

13. EUROPAKO ABANGOARDIAK. SURREALISMOA

XX. mendearen ezaugarri nagusietako bat hauxe da: jendetza ikaragarriaren mobilizazioak eragin dituen mendea izan da. Bere autonomian sendotuz eta indartuz joan zen XIX. mendeko norbanakoaren askatasuna zapuztua gelditu zen XX. mendean, gizataldearen edo giza-masaren azpian itota. Baudelaire, metropoliaren irudi nagusitzat "giza saldo"ko begirale anonimoa (*The man of the crowds*) ezarri zuenean, funtsezko egoera bat formulatzen ari zen: begirale anonimo hori, giza multzoak irentsita duen hori, da Modernitateko artista. Horiexek dira XX. mendeko heroitasunaren bi alderdiak: norberaren erabateko askatasun suharrari eutsi nahi dion norbanakoa eta mobilizatutako giza multzoen indar izugarri zapaltzaileak (faxismoak, iraultzak, mundu gerrak, hiri erraldoietako jendetzak...).



Ez da harritzekoa Espresionismoaren pintura metropoliaren pintura izatea edota 1920ko hamarraldiko film adierazgarriena Fritz Langen *Metropolis* izatea. Hau da, badago harreman estu bat XX. mendeko abangoardien eta hiri erraldioen eta hauen deshumanizazioaren artean.

Deshumanizazioak abstrakzioa esan nahi du. Hau da, artearen abstrakzioa ez zen besterik gabe sortu, modu isolatu batean; alderantziz, arte abstraktuak gizaki eta gizarte abstraktuak ditu bere atzean: gizatasunaren eta norbanakoaren zinezko

autonomiaren oinarriak azpia janda zuen. Sustrairik gabeko gizatalde deserrotua da nagusi XX. mendeko hirietan, norabiderik gabeko gizatalde abstraktuak.

Lehen Mundu Gerran aurreko lerroan borrokatu behar zuten indarrek osatzen zuten *avant-garde* frantsesezkotik hartuta dago **abangoardia** hitza. Beraz, abangoardia kontzeptuaren sorrera historikoa Lehen Mundu Gerran izan zen. Historialari ospetsu askoren iritziz, egiazko XX. mendea Lehen Mundu Gerrarekin hasi zen; beste modu batean esanda, XIX. mendea 1914an amaitu zela.

Beraz, abangoardien iraupena hauxe izango litzateke: mendearen lehen hamarralditik 1930eko hamarraldira arte. Egia esan, bi mundu gerren artean loratu eta itzali ziren abangoardia literario nagusiak.

a) Eleberria

XIX. mendeko eleberri tradizionalaren baitan berealdiko aldaketak gertatuko dira:

- Narrazioetako ekintza fragmentario bihurtzen da. Maiz ez hasiera ez amaiera ez duten kontakizunetan, irakurleak berak aurkitu beharko ditu iradokita baizik ez dauden loturak eta harremanak.
- Denboraren tratamendu lineala desagertzen da eta atzera eta aurrera jauzika egituratzen da kontakizuna.
- Ikuspuntu tradizionala alde batera utzi eta kontalari desberdinen ikuspuntutik antolatzen da kontakizuna.
- Batzuetan "kontzientziaren isuria" (*stream of consciousness*) nagusitzen da kontakizunean. Norberaren bakarrizketa nahastu eta noragabetua bihurtzen da munduaren lekuko.
- Nobela modernoaren heroi hunkigarrienak pertsonaia arrunt, xume eta anbiguoak dira: antiheroiak.

b) Antzerkia



Antonin Artaud

Antzerkiaren generoan ere absurdoak eta mundu onirikoak ordezkatu zuten antzerkiaren eraketa eta ikuspegi burgesa: espazio-denborazko hausturak, ikusleen distantziamendua eta ikusleek parte hartzeko gonbitea edo era guztietako berritasun eszenografikoak tartekatu ziren.

Antzerkigile abangoardista batzuk: **Alfred Jarry** (1873-1907), antzerki tradizionalari bizkar eman zion lehen antzerkigilea; **Antonin Artaud** (1896-1948) ikuskizun totalaren aldekoa izanik, musika, dantza, mimoa, ikusentzunezko baliabideak eta abar eranstean zizkion antzezlanaren oinarritzko testuari; **Arthur Adamov** (1908-1970), Artauden jarraitzaile, abangoardiako antzerki konprometituaren ordezkari nagusietakoa bihurtu zen.

* * * * *

c) Poesia

Bi talde edo joeratan banatuko ditugu XX. mendeko lehen zatiko poetak:

- o Abangoardistak, nahiz eta honen barnean batzuk eta besteak mugimendu oso desberdinetan kokaturik dauden.
- o Sinbolismo ostekoak: sinbolismoaren eraginpekoak dira, Baudelaire, Mallarmé eta abarrendandik eragin nabarmena jaso zutenak

ABANGOARDIA NAGUSIAK

1. Futurismoa



Etorkizunerantz bideratua dagoen kultura eta politika joera bat da futurismoa. Poesian ordu arte erabilitako teknika eta sintaxiarekikoak hautsi nahi izan zituzten, eta aldi berean mundu berriaren aurrerakuntzak, makinismoa, asmakizun berriak eta abar goraipatu zituzten. "Erre ditzagun museoak eta liburutegiak" zen iraganarekin eteteko futurismoaren aldarria. **F. Marinetti** (1876-1944) eta **V. Maiakowski** (1893-1930) dira poeta futuristarik aipagarrienak.



Badago jendea
oso txiroa dena,
dirua
besterik ez daukate

V. Mayakovsky


ADIO

Autoan azken libera trukatu dut.
 Zer ordutan Marseillerakoa?
 Paris nuen lagun bere edertasun
 sinestezinean.
 Betor begietara despedidaren
 lokatza.
 Ikara diezadala bihotza sentimentalkeriak.
 Parisen nahi izanen nukeen
 bizi eta hil
 beste herri hau ez baneuka:
 Mosku.

VLADIMIR MAIAKOVSKI

2. Kubismoa

Kubismoa Parisen sortu zen 1907 inguruan. P. Picasso eta G. Braque margolariak izan ziren haren sortzaileak. Margolari horiekin harremanean asmatu zuen **Guillaume Apollinairek** (1880-1918) kubismo literarioaren norabidea. Forma ausartetan eta aldebereko irudietan jasotzen du desegindako errealitatea haren poesiak.



SAGARRONDOAREN ALBOKO TRINTXERAN

Sagarrondoaren alboko trintxeran
 larrua jotzen dugunean, bunba,
 berehala loratzen dira arbolak,
 blaf, uneka erne eta ontzen dira
 fruituak, bunba, beren kolore gorrian.
 Eta zintzilik daude arrama gainetan,
 blaff. Eta amodioa konplitzeko istantean
 eskuetara erortzen zaizkigu, bunba,
 sagar umoak, eta azalik kendu gabe,
 blaff, jaten ditugu, bunba, blaff.

GILLAUME APOLLINAIRE

3. Espresionismoa



Espresionistak bere sentiberatasunaren arabera irudikatzen du kanpoko mundua. Beraz, erabat antierrealista da mugimendu espresionista. Pinturan bi aitzindari nagusi ditu: Van Gogh eta Edvard Munch. Azken honen *Garrasia* laukia da gainbeheran dagoen gizarte ustel eta galdutik artistak etsipenez jaurti duen garrasi lazgarria. Alemanez mintzatzen den Erdialdeko Europa osora zabaldu zen Espresionismoaren eragina: Viena (**G. Traki**), Praga (**F. Kafka**) eta Berlin (**B. Brecht**). Zinema espresionista klasiko bihurtu ziren *Caligari doktorearen gabinetea* (Robert Wiene) eta *Metropolis* (Fritz Lang).

(Ikus informazio zabalagoa 13. gaiaren azkenean)

GRODEK

Arratsaldez udazken basoetan durundatzen dira
 arma hilgarriak eta lautada urreztatuetan
 eta laku urdinetan; haien gainetik biraka dabil eguzkirik
 ilunena; gauak
 hilzorian dauden gerlariak besarkatzen ditu,
 beren aho arrailduen
 aiuri basatia.
 Isilago, belazean,
 Jaingo sumin batek habitaturiko hodei gorriak,
 isuritako odola batzen da, hoztasun ilargitarra;
 bide guztiak zorne beltzera daude ahokaturik.
 Gauaren eta izarren abar urreztatuen pean dabil baso isila
 heroien arimei, beren buru odoleztatuei diosala egiten dien
 arrebaren itzala.
 Eta ihitegian ahapeka durundatzen dira
 udazkenaren txirula ilunak.
 Oh, zeinen borroka bikaina, metalezko aldareak,
 min izugarri batek elikatzen du gaur espirituaren
 sugar kiskalgarria,
 oraindik jaio ez diren bilobak.

GEORG TRAKL

4. Dadaismoa



Tristan Tzara-k sortu zuen mugimenduaren ikuspegian, Lehen Mundu Gerraren tamainako giza balioen hondamendiaren aurrean, poesiak Mendebaldeko kulturarekin gauza berbera egin behar zuen, haren aurka arma gisa erabili, haren bidez kultura horren balio estetiko, moral, filosofiko eta erlijioso guztiak deuseztatzeko. Poesia edozein logika eta zentzutatik kanpo jarri zen, hizkuntza hautsiz, hitzak bat-bateko pentsamenduaren harira lerrokatzen zirelarik.

Kapitaina!

zeruharriek, urjauziaren indar irekiek mehatxatzen gaituzte, sugeen korapiloak, kateen zigor-hedeak, sumindura betierekoaz kutsaturiko herrialdeetan garaile hedatzen dira;

Kapitaina!

tratu txarrik jasan duten animalia guztien salaketek, ohe gainean hozkatuak, odolezko errosetoietan egiten dute aharrausi, harrizko hortzen euriteak eta karioletako zirin arrastoeak, elurrarenak bezain amaiezin diren tapakietan lurperatzen gaituzte;

Kapitaina!

itsastxakur bilakatzen den ikatzaren argitasunak, tximista, intsektu, zure begien pean, aluzinatuen eskuadroiek, munstro gurpildunek, lo-ibiltari mekanikoen oihuek, zilarrezko tableten gaineko urdail likidoek, lore haragijaleen krudelkeriek, lanegun arrunt landatarra eta zure arratsaren zinetografoa bereganatuko dituzte;

Kapitaina!

Zain ezazu zeure burua, kontuz begi urdinekin.

TRISTAN TZARA

5. Surrealismoa

Surrealismoak eskainitako irtenbidearen bi ardatzak marxismoa eta psikoanalisi izan ziren. Horien bidez, gizakiarentzako erabateko askatasuna aldarrikatu zuten. André Breton izan zen sortzaile eta bultzatzaile nagusia. Honela definitu zuen Bretonek Surrealismoa: "Automatismo psikikoa, pentsamenduaren benetako funtzionamendua hitzez, idatziz edo beste modu batez adierazten duena, adimenaren inongo kontrolik gabe eta edozein kezka estetiko edo moral baztertuz". Surrealistek ametsa, irudimena, grina, umore beltza eta erotismoa goraipatu zituzten, burgesiaren kulturaren indarrean zegoen ordenaren zapalkuntza era guztien aurka borrokatzeko.

Hasieran surrealistek inkontzientearen adierazgarritzat jotzen zituzten ametsa, eromena, eldarnioa, eta haietaz baliatzeko bilaketan hasi ziren; horretarako, idazketa automatikoa landu zuten, adimena eta borondatea saihesten zituen bat-bateko etorria.

Bizitza aldatu nahiak jarrera politikoak hartzera eraman zituen surrealistak. Orduantxe hasi ziren harremanak komunistekin, eta orduantxe hasi ziren taldekoen arteko liskarrak ere: batzuek beren iraultza nahiaren ondorioztat jotzen zuten militantzia komunista eta besteek surrealismoa arte sorkuntzari bakarrik zegokiola uste zuten. **André Breton**, **Paul Eluard**, **Jacques Prévert** eta **Raymond Queneau** izan ziren surrealista aipagarrienak.

Surrealismoaren eragina, baina, ez zen literaturara mugatu, Salvador Dalí edo Max Ernst pintoreak eta Luis Buñuel zinemagilea ere ildo beretik aritu ziren.

OGIA

Eihara ari da kalakan,
kalakan, kalakan.
Ura erortzen da burrustan,
burrustan, burrustan.
Erroda itzultzen barranban,
barranban, barranban
Bihia ehotzen karraskan,
karraskan, karraskan.
Irina agertzen xirrixtan,
xirrixtan, xirrixtan.
Kalakan, kalakan, kalakan,
Burrustan, burrustan, burrustan.
Barranban, barranban, barranban.
Karraskan, karraskan, karraskan.
Xirrixtan, xirrixtan, xirrixtan.
Ura da erortzen,
Erroda itzultzen,
Bihia ehotzen,
Irina egiten.
Gero, zer gertatzen?
Ogia oratzen,
labean erretzen,
eta guk...
Milikatuz jaten.

JACQUES PRÉVERT

ZURETZAT ENE MAITEA

Txori-merkatura joan nintzen
Eta txoriak erosi nituen
Zuretzat
Ene maitea

Lore-merkatura joan nintzen
Eta loreak erosi nituen
Zuretzat
Ene maitea

Burdin zaharren merkatura joan nintzen
Eta kateak erosi nituen
Kate astunak
Zuretzat
Ene maitea

Eta gero
Esklabuen merkatura joan nintzen
Eta han bilatu zintudan
Baina ez zintudan aurkitu
Ene maitea

JACQUES PRÉVERT

SINBOLISMO OSTEKO POETAK

Multzo handi eta zabal honetan luze joko luke gutxienezko antologia bat egiteak, poeta oso handiak eta leku eta hizkuntza askotarikoak baitaude. Eredu batzuk baino ez ditugu ekarriko.

IRLANDAR ABIADOREAK BERE HERIOTZA IGARRI DU

Badakit ene patua aurkituko dudala
han goian, hodeien artean;
ez diet erasotzen ditudanei gorroto,
ez ditut defenditzen ditudanak maite;
Kiltartan Cross da ene herrialdea
Kiltartan aldeko pobreak dira ene herkideak,
ene heriotzaren abisuak ez die haiei deus kenduko,
ez die lehen baino zorion gehiago emango.
Ez ninduen burruka honetara bultzatu
ez legeak ez eginbideak,
ez gizon publikoek, ez populuaren zaratak,
atsegin joera bakarti batek ekarri ninduen
hodei arteko iskanbila honetara;
balantzan ipini nuen guztia, bere garrantzia kalkulatu,
etortzear zeuden urteak arnasa hutsala ziren,
arnasa hutsala ziren joandako urteak.
Bizitza honekiko balantzan, heriotz hau.

W. B. YEATS

GURPILA

Negua den artean udaberriari deitzen diogu
eta udaberria denean udari diogu deitzen,
eta hostoen hotsa ugaria denean
denik eta hoberena negua dela diogu;
eta gero ez dugu deus onik aurkitzen
udaberria ailegatzen ez delako
eta ez dakigu, bada, gure odoleko istiluak
hilobirako luzestea besterik ez direla.

W. B. YEATS




William Butler YEATS
(Sandymount, IRLANDA 1865-1939)

TXAPITELA

Tira, urrikal gaitzen guk baino gehiago dutenez,
Tira, ene laguna, eta oroit ezazu
Aberatsek lagunak barik morroiak dituztela
Eta, guk berriz, lagunak ditugu morroiak barik.
Tira, urrikal gaitzen, ezkondu eta ezkongaez.
Egusentia pauso tipi eta geldiz barneratzen da
Urrezko Pavlova bat bailitzan
Eta ni nire desioari hurbil nago.
Ez dago deus bizian
Ordu hozkirri eta garden hau,
Elkarrekin itzartzen gareneko ordu hau,
baino hobe denik.

EZRA POUND



Ezra POUND
(Hailey, AEB 1885-1972)

«Kaixo, ardi zaintzen zauden hori.
Hor, bide bazterrean,
Zer esaten dizu haizeak?»

«Haizea dela, eta iragaiten dela,
Eta lehenago ere iragan zela,
Eta geroago ere iraganen dela.
Eta zuri, zer esaten dizu?»

«Niri garbiago esaten dit.
Beste gauza askotaz mintzo zait.
Oroitzapenez eta saudadez
Eta sekula izan ez diren gauzez.»

«Ez duzu haizea iragaiten sekula entzun.
Haizeaz soilik mintzo da haizea.
Entzun diozun hori gezurra da,
Eta gezurra zeure baitan dago.»

FERNANDO PESSOA



Fernando PESSOA
(Lisboa, 1888-1935)

ORDU NABARMENA

Orain munduan norbait negarrez badago
Arrazoirik gabe negarrez munduan
Ene gainean dago negarrez.

Orain gauean norbait barreka ari bada
Arrazoirik gabe barreka gauean
Nitaz ari da barreka.

Orain munduan norbait oinez badabil
Arrazoirik gabe badabil munduan
Eneganantz dator.

Orain munduan norbait hil denak
Arrazoirik gabe hil baita munduan
Ni begiratzeko nau.

RAINER MARIA RILKE



Rainer Maria RILKE (Praga, 1875-1926)

EUROPAKO ABANGOARDIAK

1. Zer harreman dago Abangoardiaren eta hiriaren artean?
2. Zer esan nahi du *abanguardia* hitzak? Nola sortu eta nola erabili izan da?
3. Zein da XX. mendearen ezaugarri nagusienetako bat?
4. Aipatu eta azaldu laburki Abangoardiak elaberriaren generoan ekarri zituen berritasunak
5. Aipatu antzerkiaren munduko hiru autore abangoardista
6. Abangoardismoaren barruko mugimendu nagusiak poesian. Eman izenak soilik.
7. Futurismoa: definizioa eta poeta bat edo bi
8. Kubismoa: definizioa eta poeta bat edo bi
9. Espresionismoa: definizioa eta poeta bat edo bi
10. Dadaismoa: definizioa eta poeta bat edo bi
11. Surrealismoa: definizioa eta poeta bat edo bi
12. Sinbolismoaren osteko poetak: definizioa eta poeta batzuen izenak
13. Apunteetako poemak irakurrita, hautatu gustukoaren duzuna eta egizu haren gaineko komentario edo iruzkin libre bat, 100 hitz gutxienez idatziz. Hauxe da prozedura:
 - Irakurri arretaz, bi aldiz gutxienez
 - Poema osoa berridatzi behar duzu
 - Azaldu zergatik hautatu duzun poema hori
 - Adierazi poemak zer esaten duen (edukia) eta nola esaten duen (forma)
 - Eman zeure iritzia pertsonala eta bai zeure interpretazioa ere

GIZON ZAHARRA (1897), Konstantinos Kavafis

Kafetxe zaratatsu bateko barrukaldean,
mahaiaren gainean makurtua jesarrita dago gizon zahar bat;
egunkari bat aurrean, lagunik gabe.

Eta zahartzaroaren goibelaren erdiko destainean,
gogoeta egiten du zein guti gozatu zituen urteak
kemena zeukanean, eta etorria, eta edertasuna.

Badaki asko zahartu dena; ohartzen da, ikusten du.
Eta horratik gazte zeneko garaiak atzo ematen du.
Zein tarte laburra, zein tarte laburra!

Eta pentsatu egiten du zelan Zuhurtziak iruzur egiten zion;
eta zelan berarengan fedea zeukan beti —hori erokeria!—

gezurtiarengan erraten ziona beti: «Bihar. Badaukazu astirik».

Oldarrak gomutatzen ditu balaztatzen zituenak; eta zenbat
alegrantzia sakrifikatzen zuen. Beraren burugabeko ezagutzaz,
orain, galduriko abagadune bakoitzak egiten du iseka.

Baina gogoetaren gogoetaz eta gomutaren gomutaz
gizon zaharra trenkaturik geratu da. Eta loak hartzen du
kafetxeko mahaiaren gainean makurtua.



Konstantinos KAVAFIS
Alexandria (1863-1933)

ARGIZARIAK (1899), Konstantinos Kavafis

Etorkizuneko egunak daude gure aurrean
argizariño biztuen lerroka bat bezala —
urrezko argizariñoak, beroak eta biziak.

Iragandako egunak atzean geratzen dira
kandela itzalien lerro goibela;
hurbileneke kea botatzen dute oraindikoko,
kandela hotzak, urtuak eta itxuragabetuak.

Ez ditut begiratu gura, tristezia ematen dit beraien itxurak,
eta ilundu egiten beraien lehen argiaren oroitzeak.
Aurrera begiratzen ditut neure argizari biztuak.

Ez dut bira egin nahi ez ikusteko (eta zirgiteko)
zein bizkor lerro goibela den luzatzen,
zein bizkor argizari itzaliak gehiago diren izaten.

ZAHARREN ARIMAK (1901), Konstantinos Kavafis

Birringuriko beren gorputz zaharkituetan
daude zaharren arimak.
Zein goibel diren gaixoak
eta zelan igartzen dioten arrastaka daroaten
bizitze landerraren haztari.
Zelan egiten duten dardara, galdu beldurrez,
eta zelan duten maitatzen
arima nahastu eta kontraesankorrek,
badaudenak —komiko-tragikoki—
beren azal zaharkitu eta unatuen barruan.

THERMOPYLAK (1903), Konstantinos Kavafis

Ohorea bizi-zean
beren Thermopylak mugatu dituzten eta gordetzen dituztenei.
Inoiz ere betebeharrari itzuri gabe;
zuzen eta artez beren ekintza guztietan,
baina errukiz eta bihotz onaz ere;
eskuzabal aberats badira, eta
pobre direlarik ostera ere apur bar eskuzabal,
ahal duten guztia lagunduz;
beti egia erranez,
baina aiherrik gabe gezur egiten dutenentzat.

Eta ohore handiagoa dute merezi
igartzen diotenean (eta askok diote igartzen)
Ephialtes agertuko dela azkenean,
eta medoek akabantzan garaituko dutela.

* Poema honetan espartarrek buruturiko ekintza heroikoari egiten dio aierupen Kavafisek (V. K.a.). Herodotok kondatzen duenez (7.213), Leonidas errege espartarrak Xerxes pertsiarraren armadari eman zion aurre Thermopilak izeneko haizpitartean. Pertsiarra, haatik, beranduago izan arren, igaro ahal izan zen azkenez Ephialtes-en traizioari esker. Espartar guztiak bertan hil ziren. Hain zuzen, Simonides olerkariak idatzirikoa hilartitzak gizon haien adorea gorai patuz, aukera ematen dio Kavafis-i gizakiorren balore etikoak ohoratzeko daukan betebeharrak burutzen dituenarena, bere halabeharrezko amaiera hurbila ezagutu arren.



ITHAKA (1911), Konstantinos Kavafis

Ithakara itzultzeko bidaian abiatzen zarenean,
egizu otoitz bidea luze izan dadin,
menturez betea, ezagutzez betea.
Lestrygonei eta Zyklopeei,
eta Poseidon hiratuari ez iezaiezu beldur izan,
horrelakorik ez duzu zeure bidean inoiz aurkituko,
zure pentsamenduak gora badirau, baldin eta zirrara
fin batek zure izpiritua eta zure gorputza ukitzen baditu.
Lestrygonak, Zyklopeak,
Poseidon hiratua ez dituzu aurpegiratuko,
zeure ariman ez badiezu abaro ematen,
zure arimak ez baditu jartzen zure aurrean.


Egizu otoitz bidea luze izan dadin.
Anitz udagoiz izan dadin,
zeinetan zein plazerrez, zein zoriontasunez
helduko baitzara alde aurretik amesturiko portuetara;
geldi zaitez merkatu feniziarretan,
eta merkantzia ederretarik egizu pilakera,
perlak eta koralak, anbare eta ebanoak,
eta lurrin laketgarri era guztietakoak,
ahal duzun gehiena lurrin laketgarrietarik;
hiri egipziar askotara joan zaitez,
ikasteko eta ikasteko dakitenengandik.

Zeure adimenduan ukan ezazu Ithaka beti.
Horrainoko etorrera da zure jomuga.
Baina ez ezazu presaka zeure bidaia bat ere.
Hobe da anitz urte eder dirauela;
eta behin zaharturik ja irlara heltzea,
bidean irabazitako guztiarekin aberats,
espero gabe Ithakak aberastasunik ematea.
Ithakak bidaia eder bat eman zizun.
Bera gabe ez zinatekeen abiatu.
Baina ez dauka deus besterik zuri emateko.
Eta pobrea edireten baduzu, Ithakak ez zintuen engainatu.
Bilakatu zaren jakintsua, hainbeste esperientziarekin
ulertu dukezu Ithakak zer erran nahi duen.

* Nahikoa ezaguna da Ithaka mitikoa, Ulyses-en sorterrria, eta halaber Homeroren poema, Odisea, Ulyses-en itzulera kondatzen duena Troiako gerratearen ostean, eta Poseidonen amorruagatik jasan zituen gora beherak Ithaka helmuga zeukan pasadizoz beteriko bidaia burutu baino lehen. Kavafisen olerkia, beraz, bidaia haren alegoria da, eta era berean Ulyses-ek aurkitu zituen arazo batzuen, hala nola Lestrygonen eta Zyklopeen gertakariena. Bidaia bizitza da Kavafisentzat.



LITERATUR GURUTZEGRAMA 4



Abangoardiako korronte artistikoa

1. Dadaismoko poeta bat (izen osoa)
2. Frantzian sortutako elaberri berritzailearen izena (frantsesez)
3. Espresionismoko film mitikoa
4. Idazle frantsesa, *Denbora galduaren bila*-ren egilea (abizena)
5. Errealitatea desitxuraturaz artistaren barne mundua adierazi nahi duen korronte artistikoa
6. Margolari surrealista ospetsu baten abizena
7. James Joyce-ren lan gorena
8. Espresionismoko zinema zuzendari alemaniarra
9. Abangoardiako korronteetako bat
10. Margolari espresionista, *Garrasia* margolanaren egilea (abizena)
11. Ingeleseko idazlea, feministen aitzindaritzat jotzen dena (abizena)
12. Alemanieraz idatzi zuen idazle pragatarra (abizena)

